

## “BAKAR-ETXEA”

“*Bakar-Etxea*”

Endaia'ko Pierre Loti'ren etxea da “Bakar-Etxea”. Gaur egon naz lenengo aldiz bertan, Loti'ren semeak artu nau, Samuel Pierre-Loti Viaud'ek. Lorategian jesarri gara, eta berbaldi luze bat euki dogu, bere aitaren ganean batez be. Baso txiki bat dirudi lorategiak, eta auzoko katu gorriak bertan, Afrika'ko tigrekumak.

Bakarrik gelditu naz, dibuju batzuk egiten. 1965-VII-14'a da gaur, eta gudarien turuta otsa entzuten da erriko enparantzan, Frantzia'n aberri eguna dalako gaur. Ondarribi aldera begira be jesarri naz, itxas-ertzeko orma ganean dagoan glorieta. Zenbat bidar egon ote zan Txingudi itsasadar oni begira Loti, Jaizkibel mendirantza bere itsas-gizon begiak, ni orain bezela, eta zenbat bidar entzun ote ebazan Ondarribi'ko eliza zarraren kanpai otsak... eta Amute'ko Kaputxiñuen komentukoenak! Ementxe idatzi eban *Ramuntcho*...

\* \* \*

*Arratsalde be-laiñotsua*

Garai erritxora igotekotan izan gara gaur arratsaldean On Jesus Etxano'tarra ta biok, baiña be-laiñoak artu dauz mendiak bazkal ostean, eta ez gara urtetan ausartu. Etxeko balkoian emon dogu arratsaldea, berbetaldi egokian, gure gauzak kontetan. Anboto ta inguruko atxak laiñoz estalduta, Sirimiri tantaka batzuk noiz beinka. Astarloa'ren uri zarra aurrean; Kirikiño'rena ta nerea, belaiñopean...

Euskal-liburuz beterik dago On Jesus'en liburutegia. Jaiotez Barakaldo'koa izan arren, ondo ikasi dau euskeraz idazten, Ainbat lan argitaratu dauz “Karmel” aldizkarian.

—*Eta Regoyos ori?* —esaten deusat, lauko bat ikustean.

—*Ez, neuk egiñikoa da ori.*

Bai, adiskide ona da On Jesus, baiña idazle ta ertilari apala be bai. Beti ikasten dot gauza onen bat beragandik, ikusten dodan ba-koitzean.

\* \* \*

### *Elbetea*

Paper zarrak apurtzen nabillela baztarrak garbitze orduan, eta gitxien uste izan dodanean aurkitu dot. Elizondo'ra lenengo aldiz joan nintzanean egiñiko dibujua da: Elbetea'ko eliza ta inguruko etxeak. Bruno Etxenike'tarraren billobeari bialdu neutsalakoan nengoan, baiña ez; eztakit zelan emen gelditu zan. Urteak joan eta urteak etorri, emen agertu da barriro, lagun zarraren antzera. Zelako gogorapenak dakartzazan dibuju onek. Noiz egiña dan, berak diño: 1954'an. Bai, orduko Bidasoa'ko tren-txikian joan giñan. Lekaroz'ko ikastetxeari be ikustaldi bat egin geuñtsan. Elizondo ikusi ta Elbetea'ko erriko tabernan bazkaldu gendun. Erriko jaiak ziran, eta txapligo dunbada ugari entzuten zan an. Euskeraz egin neban berba erriko gazte batzuekin, eta tira, erdizka ba-zan be konpondu giñan. Makiña bat bidar ibili naiz arrazkero Bidasoa'ko errietatik ziar, baiña Elizondo'n bein be ez barriro. Dibuju onek ekarri deusta gogora a 1954'ko egun ederra.

\* \* \*

### *Azkenengo eskutitza*

“Gure etxetik, Semendiyen ogeta lauen...”

Nere aita ona (G.B.) zanaren azkenengo eskutitza, gelan daukat orman josita. Euskeraz egiña da, beste asko egin eustazan moduan. “Gu ondo gabiz danok, eskerrak Jangoikuari.” Bai, ez ekian berak laister joan bear ebanik betiko, gixajuak...

Aitaren azkenengo eskutitza, baiña paperean bertan etorren illo-batxoaren lenengokoa. “Osaba, au cartiau eskribidu dau...” Aitaitaren azkenengoa, eta illoba txikitxoaren lenengokoa. Badoianaren agurra, eta datorrenarena. Euskeraz biak. Urrengokoek be orrelan jarraitu dagiela gure etxean.

MARKUE.